

Ebazpena: R022/2025
Espedientea: E044/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Arabako Foru Aldundiak (AFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazkaren helburua da zehaztea noren eskumena den ordainaraztea GIZARTE SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONALA (aurrerantzean, GSIN; IFK: XXXXXXXX1) eta MUTUA UNIVERSAL MUGENAT MUTUA DE ACCIDENTES DE TRABAJO Y ENFERMEDADES PROFESIONALES DE LA SS N 10 (aurrerantzean, MUGENAT; IFK: XXXXXXXXX1) entitateek 2017ko urtarrilean egindako hartzeko pasiboen atxikipenak. Gatazka hori 44/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- 2021eko otsailaren 25ean, AFak ZAEARI eskatu zion bidaltzeko GSINek eta MUGENATEk hainbat pentsioduni eta hartzeko pasiboen jasotzaileri PFEZaren kontura egindako atxikipenak.

2.- Hasieran ados egon ez arren, ZAEAk onartu egin zuen aldi guztiei zegokien zorra, 2017ko urtarrilekoa izan ezik, uste baitzuen preskribatuta zegoela 4 urte igarota zeudelako.

3.- ZAEAk inhibizio-errekerimendua ezetsi ondoren, AFAk 44/2022 eskumen-gatazka planteatu zuen. Eskumen-gatazka hori prozedura arruntaren bidez izapidetu da, zeren ulertu da 2017ko urtarrileko epea ez zegoela preskribatuta, aplikagarri baitzizaion Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko 53/1992 Foru Arauaren 21. artikulua onduzko 5 urteko epea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek funtzio hauek ezartzen baitzizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Preskripzio-epea.

Gai hori dagoeneko argitu da Arbitraje Batzordearen 4/2025 Ebazpenean.

Bertan adierazi zen Arbitraje Batzorde honek behin baino gehiagotan eman duela erabakia, besteak beste, Arbitraje Batzordearen 2014ko abenduaren 19ko 11/2014 Ebazpenean, baita geroago emandakoetan ere (2022ko uztailaren 28ko 39/2022, 40/2022, 41/2022, 42/2022 eta 43/2022; 2022ko urriaren 6ko 76/2022; 2022ko abenduaren 15eko 174/2022 eta 176/2022; eta 2023ko ekainaren 23ko 68/2023, 70/2023, 72/2023, 73/2023, 74/2023 eta 75/2023). Haien bidez, irizpide konstante bat finkatu da, eta, haren arabera, administrazioen arteko kreditu publikoko eskubideak aurrekontu-izaera publikoa dauka, administrazioak zergadunaren aurrean duen tributuei eskubideaz bestelakoa, eta administrazioen arteko kreditu-eskubide publikoaren preskripzio-epea hasten dela bidegabeko diru-sarrera egiten den unean, eta, zergapekoarekin eskuduntzat jotzen den administrazioak jarraitzen duen tributuei prozeduran egiten diren egintzak gorabehera, hura ez dela etengo.

Irizpide horrek Auzitegi Gorenaren babesa jaso du, zeinak berretsi egin baitu, besteak beste, epai hauetan: 2015eko abenduaren 15ean (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2020ko maiatzaren 18an (ECLI:ES:TS:2020:1010), 2020ko abenduaren 3an (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28an (ECLI:ES:TS:2021:372) eta 2022ko otsailaren 10ean (ECLI:ES:TS:2022:596).

Auzitegi Gorenak berriro baliatu zuen irizpide bera oraintsuagoko epai hauetan: 2023ko urriaren 11n (ECLI:ES:TS:2023:4217), 2023ko urriaren 23an (ECLI:ES:TS:2023:4427), 2023ko urriaren 27an (ECLI:ES:TS:2023:4430), 2024ko otsailaren 12an (ECLI:ES:TS:2024:734) eta 2024ko ekainaren 21ean (ECLI:ES:TS:2024:3329). Epai horietan, Arbitraje Batzordearen hainbat ebazpen

aurkaratu ziren –zeintzuek preskribitutzat jo baitzituzten tributu-administrazioen arteko kreditu batzuk, okerreko administrazio batean sartutako atxikipenengatik–, eta aztertu zen noiz hasi zen zenbatzen preskripzio-epea eta zergatik eten ziren; bereziki, ea zergapekokiko administrazio-jarduketek indarrik zuten epea eteteko.

Esku artean dugun gatazka honetan, erreklamatutako atxikipenak, ZAEAREN iritziz, estatu-eskumenekoak dira, eta, AFAREN iritziz, foru-eskumenekoak; beraz, eskumena AFARI egokituko balitzaio, ZAEAREN betebeharrak baten aurrean eta AFAREN eskubide baten aurrean egongo ginateke.

Horrenbestez, aukera ematen du ondorioztatzeko aplikagarria dela 53/1992 Foru Arauaren 21. artikulua, xedatzen duena AFAREN eskubideak bost urteren buruan preskribatuko direla. Hala ere, administrazioen arteko eskubide batek berekin dakarrenez administrazioen arteko betebeharrak, ALOREN 25. artikulua ere aplikagarria izango litzateke, eta, hark zehazten du betebeharrak lau urtera preskribatuko direla.

Desadostasuna, beraz, preskripzio-epetarako buruzkoa da; izan ere, 53/1992 Foru Arauak, 21. artikuluan, bost urteko epea ezartzen du, eta ALOK, 25. artikuluan, berriz, lau urtekoa.

Ondorioz, bost urtez eskatzeko eskubidearen aurrean, lau urtez aitortzeko betebeharrak ezartzen da, eta, Arbitraje Batzorde honen ustez, AFAREN eskubideak talka egiten du ZAEAREN betebeharrak mugatzearekin. Hori dela eta, bost urteko preskripzio-eskubidearen aurrean, nagusitu egiten da ALOREN 25. artikuluan ezarritako betebeharraren preskripzio-epea; hau da, lau urtekoa.

Bada, AFAK 2021eko otsailaren 25ean bidali zizkionez itzulketak eskatzeko idazkiak ZAEARI, egun horretan igarota zeuden lau urte baino gehiago 2017ko urtarrileko atxikipenak ordaindu zirenetik. Horrek aukera ematen du

ondorioztatzeko daiteke preskribatuta dagoela AFAk duen eskubidea ZAEaren ordainketa-betebehar bat aitortzeko epe horri lotuta.

Aurreko hori bat dator Arbitraje Batzordearen aurreko ebazpenekin, besteak beste honako hauekin: 2023ko apirilaren 20ko 45/2023 (11/2017 espediente), 46/2023 (10/2017 espediente), 47/2023 (12/2017 espediente); 2023ko maiatzaren 8ko 50/2023 (17/2017 espediente) eta 51/2023 (23/2017 espediente), edo 2022ko abenduaren 15eko 171/2022 (36/2015 espediente) ebazpenekin. Ebazpen horietan atxikipenak AFAn sartuta zeudenez, ZAEAk eskatu zuen haiek bidaltzeko. Haietan, Arbitraje Batzordeak ebatzi zuen erabakitzea lau urteko preskripzio-epea ezartzea ZAEaren eskubideak preskribitzeko eperako, atxikipenak sartu ziren egunetik zenbatzen hasita. Hau da, AFaren betebeharrak preskribatzeko 53/1992 Foru Arauan ezarritako bost urteko epea gorabehera, ulertu zen gailendu egin zela ALOn ezarritako eperik laburrena. Edo, beste modu batera esanda, lau urteko eskubide baten eta bost urteko betebehar baten artean, epe laburragoa nagusitu zen, hau da, lau urtekoa.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea preskribatuta dagoela ZAEAk duen betebeharra AFari itzultzeko GSINek eta MUGENATEk hainbat pentsioduni eta jasotzaile pasibori 2017ko utarrilean egindako PFEZren atxikipenen zenbatekoa.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta GSIN eta MUGENAT entitateei.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.